| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
| --- | --- |
| 4622 MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA | *4622 INSTITUTO DE LA MEMORIA, LA CONVIVENCIA Y LOS DERECHOS HUMANOS* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 42 MEMORIAREN, BIZIKIDETZAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA | *42 INSTITUTO DE LA MEMORIA, LA CONVIVENCIA Y LOS DERECHOS HUMANOS* |
| ZUZENDARIA | *DIRECTOR/A* |

## HELBURUA

KUDEAKETA- ETA KOORDINAZIO-PROIEKTUAK

1. BATERAKO LANA BAKERAKO ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARIAREKIN
2. KOORDINAZIOA BESTE MEMORIA-ERAKUNDE BATZUEKIN
3.- MEMORIA HISTORIKOARI BURUZKO LANKIDETZA, EAE-KO INSTITUZIOEKIN
4.- MEMORIAREN EGUNA KOORDINATZEA ETA SUSTATZEA

IKERKETA ETA ARTXIBO PROIEKTUAK

1.- MEMORIA ETA ARTXIBOARI BURUZKO IKERKETAK EGITEKO TRESNAK SORTZEA
2.- MEMORIA HISTORIKOAREN EGIA ARGITZEA
3.- IKUS-ENTZUNEZKO FUNTS BAT SORTZEA, AZKEN GARAIKO MEMORIARI BURUZ.

PROIEKTU DIBULGATIBOAK

1.- GOGORA-REN DIBULGAZIO-LANERAKO BALIABIDEAK SORTZEA
2.- MEMORIA HISTORIKOAREN GUNEAK IDENTIFIKATZEA
3.- AZKEN GARAIKO MEMORIAREN HEZKUNTZA-EKARPENAK

## *OBJETIVO*

*PROYECTOS DE GESTION Y COORDINACIÓN*

*1. TRABAJO CONJUNTO CON LA SECRETARIA PARA LA PAZ Y LA CONVIVENCIA*
*2. COORDINACIÓN CON OTRAS INSTITUCIONES MEMORIALES*
*3. COLABORACIÓN CON INSTITUCIONES VASCAS SOBRE MEMORIA HISTÓRICA*
*4. COORDINACIÓN Y PROMOCIÓN DEL DÍA DE LA MEMORIA*

*PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN Y ARCHIVO*

*1. CREACIÓN DE HERRAMIENTAS DE INVESTIGACIONES SOBRE MEMORIA Y ARCHIVO.*
*2. ESCLARECIMIENTO DE LA VERDAD DE LA MEMORIA HISTÓRICA*
*3. CREACIÓN DE UN FONDO AUDIOVISUAL PÚBLICO SOBRE MEMORIA RECIENTE*

*PROYECTOS DIVULGATIVOS*

*1. CREACIÓN DE RECURSOS PARA LA ACTIVIDAD DIVULGADORA DE GOGORA*
*2. IDENTIFICACIÓN DE ESPACIOS DE MEMORIA HISTÓRICA*
*3. APORTACIONES EDUCATIVAS DE LA MEMORIA RECIENTE*

## BETETZE MAILA

**KUDEAKETA- ETA KOORDINAZIO-PROIEKTUAK**

**1. BATERAKO LANA BAKERAKO ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARIAREKIN**

Aranzadi Zientzia Elkarteak eta EHU-UPVek garatu duten 1936-78 urte bitartean urratu ziren oinarrizko eskubideei buruzko oinarrizko-txostenaren finantzaketa bezalako proiektu zehatzak partekatu egin dira.

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***PROYECTOS DE GESTION Y COORDINACIÓN***

***1. TRABAJO CONJUNTO CON LA SECRETARIA PARA LA PAZ Y LA CONVIVENCIA***

*Se han compartido proyectos concretos como la financiación del desarrollo del Informe-base de vulneraciones de los derechos humanos en el periodo 1936-78 por parte de la Sociedad de Ciencias Aranzadi y EHU-UPV.*

**2. KOORDINAZIOA BESTE MEMORIA-ERAKUNDE BATZUEKIN**

Gernikako Bakearen Museoko Patronatuak, ekaineko bileran, Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako museoa birmoldatzeko proposamena onartu zuen. Ondoren, urrian, Xabier Irujo historialariari azalpen-hitzaldi bat proposatzeko eskatu zekiola onartu zen.

Terrorismoaren Biktimen Memorialarekin elkarrizketa eta koordinaziorako espazio bat ezartzeko proposamena prestatu da, eta laster aurkeztuko da.

Beste autonomia-erkidego batzuetako memoria-erakundeekin harremanak hasi dira.

***2. COORDINACIÓN CON OTRAS INSTITUCIONES MEMORIALES***

*El patronato del Museo de la Paz de Gernika aprobó en su reunión de junio la propuesta de remodelación del museo presentada por el Gobierno Vasco. A continuación, en octubre, aprobó solicitar una propuesta de discurso expositivo al historiado Xabier Irujo*

*Se ha preparado una propuesta para establecer un espacio de diálogo y coordinación con el Memorial de Víctimas del terrorismo, que les será presentada próximamente.*

*Se han iniciado los contactos con las instituciones memoriales de otras comunidades autónomas.*

**3. MEMORIA HISTORIKOARI BURUZKO LANKIDETZA, EAE-KO INSTITUZIOEKIN**

EAEko udalekin lankidetzan jarraitu da, sinbologia frankista ezabatzeko. Egindako jardueren jarraipen etengabea egin da, eta hala eskatu duten udalei, sinbologia kentzeko diru-laguntza eman zaie.

Urtarrilean, Duintasunaren Kolunbarioa inauguratu zen, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan, udalerri horretako Olaso kanposantuaren inguruan. Inaugurazio-ekitaldian 27 giza gorpuzki hobiratu ziren.

Elgoibarko Udalarekin kolunbarioa mantentzeko protokoloa adostu da, eta hitzarmen bidez formalizatu da.

***3. COLABORACIÓN CON INSTITUCIONES VASCAS SOBRE MEMORIA HISTÓRICA***

*Se ha seguido colaborando con los ayuntamientos vascos para la retirada de simbología franquista, haciendo un seguimiento continuado de las actuaciones llevadas a cabo y subvencionando la retirada a aquellos ayuntamientos que lo solicitasen.*

*En enero se inauguró el Columbario de la Dignidad en colaboración con el Ayuntamiento de Elgoibar, en las inmediaciones del Cementerio Olaso de esta localidad. En el acto de inauguración se inhumaron 27 restos humanos.*

*Se ha acordado con el Ayuntamiento de Elgoibar un protocolo de mantenimiento del Columbario, formalizado a través de un convenio.*

**4. MEMORIAREN EGUNA KOORDINATZEA ETA SUSTATZEA**

GOGORAk udaletan urtero Memoriaren Eguna ospatu dadila sustatu du. Horretarako, bere lankidetza eskaini eta memoriarekin lotutako ikus-entzunezko baliabideak jarri ditu eskura, hala badagokio antolatu daitezkeen memoria-ekitaldietan proiektatzeko.

***4. COORDINACIÓN Y PROMOCIÓN DEL DÍA DE LA MEMORIA***

*GOGORA ha promocionado la celebración anual del Día de la Memoria en los Ayuntamientos prestando su colaboración y poniendo a su disposición recursos audiovisuales relacionados con la memoria para, en su caso, proyectarlos en los actos memoriales que pudieran organizar.*

**IKERKETA ETA ARTXIBO PROIEKTUAK**

***PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN Y ARCHIVO***

**1. MEMORIA ETA ARTXIBOARI BURUZKO IKERKETAK EGITEKO TRESNAK SORTZEA**

GOGORAk gaur arte dituen datu-baseak eta agiriak antolatzeko proiektua burutu du.

Gerra Zibilean eta Frankismoan urratutako giza eskubideen oinarrizko txostenaren lehen fasea garatu da, bai eta Gerra Zibilean hildako pertsonen datu-basea ere.

***1. CREACIÓN DE HERRAMIENTAS DE INVESTIGACIONES SOBRE MEMORIA Y ARCHIVO.***

*Se ha culminado el proyecto de ordenación de los documentos y bases de datos que hasta el momento tiene GOGORA.*

*Se ha desarrollado la primera fase del Informe-base de vulneraciones de derechos humanos en la Guerra Civil y el franquismo y una base de datos de fallecidos en la Guerra Civil.*

**2. MEMORIA HISTORIKOAREN EGIA ARGITZEA**

Hobiak ikertu eta kokatzeko EAEko plana garatzen jarraitu da, eta urtean zehar 5 hobi ireki dira.

DNAren bankua handitzeko proiektua aurkeztu da. Urtearen amaieran DNAren 200 lagin izan ditu. Bestalde, 12 eskari gehiago izapidetu dira, baina oraindik lagina jasotzeke dute.

Desagertutako pertsonen banakako txostenak egiteko 200 eskaritik gora jaso dira. Eskariok senideek egin dituzte.

Gerra Zibilean eta Frankismoan urratutako giza eskubideen oinarrizko txostenaren lehen fasea burutzeko eta aurkezteko lanak martxan daude.

Memoria historikoaren diru-laguntzak deitu dira, elkarteei zuzenduta. 27 proiektuk jaso dute diru-laguntza, 105.000 eurotan.

**3. IKUS-ENTZUNEZKO FUNTS BAT SORTZEA, AZKEN GARAIKO MEMORIARI BURUZ.**

Biktimen lekukotzak grabatzeko Gertu programa garatzen jarraitzen da. Aurten, EAEtik kanpo (Bartzelonan, Galizian, Andaluzian, …) terrorismoaren ondorioz hildako pertsonen senideen lekukotza berriak grabatu dira, bai eta atentatuen biktima izan diren edo/eta mehatxuak jaso dituzten pertsonen 50 grabazio berri egin ere.

EAEn Gerra Zibiletik gaur egun arteko memoria demokratikoa berreskuratzeko ikus-entzunezko proiektuak egiteko diru-laguntzen deialdia egin da, eta deialdia ebatzitakoan, 8 proiektu lagundu dira diruz. Horretarako, 73.816,48 euro bideratu dira.

**PROIEKTU DIBULGATIBOAK**

**1. GOGORA-REN DIBULGAZIO-LANERAKO BALIABIDEAK SORTZEA**

2017. urtean zehar, Memoriaren Plaza erakusketa 7 leku berritan egon da, eta guztira 27.500 pertsonak parte hartu dute; horietatik 4.100 DBHko 4. mailako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ikasleak izan dira.

Erakusketa iraunkorraren proiektuaren lehen proposamena lantzen eta kontsultatzen hasi da, eta datorren urtean zehar zehaztuko da, horretarako lantalde bat sortuko baita.

Venancio Iñurrietaren "Zutik ozta-ozta nator" biografia argitaratu da. Benan Oregi Iñurrietak idatzi du, eta "Memoriak" bildumako bigarren liburua da.

***2. ESCLARECIMIENTO DE LA VERDAD DE LA MEMORIA HISTÓRICA***

*Se ha seguido desarrollando el Plan Vasco de investigación y localización de fosas y en el transcurso del año se han abierto 5 fosas.*

*Se ha presentado el proyecto de ampliación del Banco de ADN, que al finalizar el año cuenta con 200 muestras de ADN. Por otra parte, hay 12 solicitudes más tramitadas, pendientes de la recogida de muestra.*

*Se han tramitado más de 200 peticiones de informes individualizados de desaparecidos/as solicitados por familiares.*

*Se está trabajando para culminar y presentar la primera fase del Informe-base de vulneraciones de derechos humanos en la Guerra Civil y el franquismo.*

*Se han convocado las subvenciones de Memoria Histórica dirigidas a asociaciones, habiéndose subvencionado 27 proyectos por un importe de 105.000, euros.*

***3. CREACIÓN DE UN FONDO AUDIOVISUAL PÚBLICO SOBRE MEMORIA RECIENTE***

*Se sigue desarrollando el programa Gertu de grabaciones de testimonios de víctimas. Durante este año se han grabado nuevos testimonios de familiares de víctimas mortales del terrorismo fuera de Euskadi (Barcelona, Galicia, Andalucía, …), así como 50 nuevas grabaciones de víctimas de atentados y/o personas amenazadas.*

*Se ha realizado la convocatoria de subvenciones para la realización de proyectos audiovisuales que aborden la recuperación de la memoria democrática de Euskadi desde la Guerra Civil hasta la actualidad, y una vez resuelta la convocatoria se han subvencionado 8 proyectos para los que se han destinado 73.816, 48 euros.*

***PROYECTOS DIVULGATIVOS***

***1. CREACIÓN DE RECURSOS PARA LA ACTIVIDAD DIVULGADORA DE GOGORA***

*A lo largo de 2017 la exposición Plaza de la Memoria ha tenido 7 nuevos emplazamientos con una participación total de 27.500 personas, de las que 4.100 son alumnos y alumnas de 4. de la ESO, Bachiller y Formación Profesional.*

*Se ha empezado a trabajar y consultar una primera propuesta de proyecto expositivo permanente, que se concretará a lo largo del próximo año, a través de la creación de un Grupo de Trabajo.*

*Se ha publicado la biografía de Venancio Iñurrieta "Zutik ozta-ozta nator" elaborada por Benan Oregi Iñurrieta, segundo libro de la colección "Memoriak".*

## 2. MEMORIA HISTORIKOAREN GUNEAK IDENTIFIKATZEA

Gerra Zibilean zehar bonbardatutako tokiak geolokalizatzen dituen proiektua garatu eta jendearen esku jarri da, GOGORAren webgunearen bidez.

2017ko uztailaren 28an, GOGORAren egoitzan Burdin Hezia proiektua aurkeztu da, bai eta proiektu hori gauzatzeko erakundearteko akordioa ere. Era berean, hitzarmena sinatu dute 33 udalerrik, Bizkaiko Foru Aldundiak, Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta GOGORAk. Orain, udalerri bakoitzean kasuan kasu egin ahalko diren jarduerak aztertzen ari dira, eta ibilbideak markatzeko seinale komunak diseinatu dira.

## *2. IDENTIFICACIÓN DE ESPACIOS DE MEMORIA HISTÓRICA*

*Se ha desarrollado el proyecto y puesto a disposición del público, a través de la página web de GOGORA, la geolocalización de los lugares bombardeados durante la Guerra Civil.*

*El 28 de julio de 2017 se ha presentado, en la sede de GOGORA, el proyecto del Cinturón de Hierro y el acuerdo interinstitucional para llevar a cabo el proyecto. Asimismo, se ha suscrito un acuerdo entre 33 municipios, la Diputación Foral de Bizkaia, la Diputación Foral de Álava, el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco y GOGORA. A continuación se está analizando las actuaciones que se pueden llevar a cabo en cada municipio, caso a caso, y se ha diseñado una señalética común para marcar los itinerarios.*

## 3. AZKEN GARAIKO MEMORIAREN HEZKUNTZA-EKARPENAK

Memoriaren dimentsio historikoa hezkuntzan sartzeko proposamena prestatzeko lanak hasi dira.

## *3. APORTACIONES EDUCATIVAS DE LA MEMORIA RECIENTE*

*Se han iniciado los trabajos para preparar la propuesta de la inserción de la dimensión histórica de la memoria en la educación.*